

Frisiera helduei irakastea eta curriculumaren berrikuntza

Reitze J. Jonkman

Testuinguru sozio-geografikoa

Frisiako probintzia edo Fryslân, 1997.etik hori du izen ofiziala, Herbehereetako Erresumako hamabi probintzietako bat da. Frisia Herbehereen iparraldean dago, Ipar Itsasoko hegoaldeko mugan. Frisiar irla gehienak probintziako zatiak dira. Herbehereetako populazioa gutxi gorabehera 15,5 milioiek osatzen dute, Frisiakoa, ordea, 617.000ek besterik ez; %4 baino gutxiago, hain zuzen ere. Frisia Herbehereetan bere biztanleria urriarengatik da ezaguna; nekazari-probintzia da. Hiri handiena (88.000 biztanle), Leeuwarden/Ljouwert hiriburua da. Erdi Aroan hiri-eskubideak lortu zituzten hamaika hiri ofizialetako bat da. Hiri gehienak nahiko txikiak dira. Gehientsuenek ez dute 10.000 biztanle baino gehiagorik. Gainera, 400 bat herri daude 1.500 biztanle baino gutxiagokoak: herri-komunitate txiki horietan du frisiar hizkuntzak egoerarik indartsuena.

Jakin beharreko beste datu bat da Frisia probintzia migratzailea izan dela. Jende gaztea joan egiten da goi-mailako ikasketak edota lan egitera. Hori dela eta, Frisiako biztanleriaren hezkuntza-maila eta errenta-maila Herbehereetako batez bestekoa baino beherago dago; langabezia, oster, gorago. Herbehereetako alderik mendebaldekoenean, adibidez Amsterdam edo Rotterdamen, Frisia bazterreko lurralde bezala ikusi ohi da, industria handirik gabekoa baina belardi berdez betea eta oporraldietan nabigatzeko laku ederrez josia. Nekazaritza eta turismoa dira bertako jendearentzat diru-iturri nagusiak.

Testuinguru politikoa

Frisia Herbehereetako zatia da XVI. mendean Espainiaren kontrako matxinadan (Felipe II.a) Holanda eta beste probintzia batzuk batu zirenetik. Beraz, ez zen indarrez hartua izan, alderantziz, zazpi probintzia asken batasun federalean parte hartzeko aukeratua izan zen; batasun horretarako hizkuntza nederlandera zen. XIX. mende hasieratik Herbehereak estatu zentralista bilakatu ziren. Eta gaur egun horrela jarraitzen dute. Erromantizismokoan frasieraren aldeko mugimenduak hizkuntza hori bultzatzen hasi ziren; hala ere, gaur egun, bi mende igaro ondoren, nederlandera estatuko hizkuntza oso indartsua da oraindik Frisian. Probintziako gobernuak eskubide politiko propioak ez izatea da

egoera horren arrazoietakoa bat. Gobernu zentralak hizkuntz eskubide politiko mugatu batzuk bakarrik eman ditu. Frisiera neurri bateraino onartzen da: frisiera hutsean hitz egin edo idatz daiteke hiritarrak aurka jartzen ez diren bitartean. Horrela, hiritarren bat kexatuko balitz, orduan nederlanderaz egin beharko litzaioke horri. Ez da, ordea, nederlanderatik frisiarera itzultzerik eskatzen. Bi hizkuntza ofizialak, estatuko hizkuntza den nederlanderaz eta probintziakoa den frisiaraz, ondo-ondoan erabiltzen dira arlo guztietan eta maila ezberdinetan. Frisiera hizkuntza gutxituak nederlanderaz hizkuntza nagusiarekiko duen menpekotasuna azaltzeko nahikoa da hizkuntza gutxituaren gaitasun-mailari eta erabilerari buruzko zerbait esatea.

Testuinguru soziolinguistikoa

Funtsean, esan daiteke frisiar hiztun batek nederlanderaz ere badakiela hizkuntza horren nagusitasun soziala dela medio. Hortaz, frisiar hiztuna elebiduna da beti. Bestalde, badaude hizkuntza gutxitua ikasten duten nederlanderadun gutxi batzuk.

Frisieraz eta nederlanderaz gain, eskualde-mailako beste aldaera batzuk ere hitz egiten dira Frisiako probintzian. Zenbait landa-herritan eta hiri frisiarretan dialekto ez-frisiarrek hitz egiten dira. Aldaera horien hiztunak arrazoi estatistikoak direla medio, nederlanderaren eskualde-aldaeren artean sartzen dira.

Hizkuntz gaitasuna Frisian

Lau trebetasun bereiz daitezke hizkuntza baten gaitasunean: ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena. Azken hogeita hamar urteotako garapenaren bilakaera ikusi ahal izateko, 1967 (Pietersen, 1969), 1980 (Gorter et al., 1984) eta 1994ko (Gorter & Jonkman, 1995) datuak konparatu ditugu. 1967ko emaitzak errealitatea baino hobeak dira, ez baitziren arrazoi praktikoengatik kontuan hartu Frisiar Irlak eta zenbait hiri frisiar (aldaera ez-frisiarren hiztun direnak).

.1:

Frisieraren gaitasuna 1967, 1980 eta 1994an (ehunekotan)

	1967	1980	1994
Ulermena	97	94	94
Mintzamena	85	73	74
Irakurmena	69	65	65
Idazmena	12	11	17
Laginaren tamaina	(n = 800)	(n = 1.126)	(n = 1.368)

Taulan ikusten ahal den bezala (.1), ez dago aldaketa handirik azken hogeita hamar urteotan ulermenean eta irakurmenean. Frisieraz 70eko hamarkadan hitz egiten zutenen proportzioa jaitsi egiten da 80koan. Frisieraz idazteko gai direnak %11 izan dira denbora luzean, hala ere, %17 dugu azken galdeketa. Frisiera hitz egiteko gai direnak %75 dira: 450.000 lagunek hitz egin dezakete frisiaraz.

Nahiz eta atalez ataleko emaitzen arteko aldea txikia izan (frisiar hiztunen proportzioa oso gutxi aldatu da), trebetasun guztien garapena, 1967tik 1994ra bitartekoa, nabarmen aldatu da. Ulermen, mintzamen eta irakurmenean behera egin dute zifrek. Idazmenean, berriz, gora. Aldaketa horiek ez dira halabehar hutsaren ondorio.

Pisuzko arrazoi bat da frisia ulertzen dutenen ehuneko altua; gutxi diote-eta ulertzen ez dutela. Bi azalpen-mota daude hori argitzeko: bata, frasieradun ez-jatorrizkoek izan duten aurkeztapen-maila eta, bestea, bi hizkuntzek, mendebaldeko hizkuntza germaniarrak izanik, duten elkarren antza. Ikus ditzagun hiru esaldi hauek:

Frisiera: Bûter, brea en griene tsiis, wa't dat net sizze kin is gjin oprjochte Fries.

Nederlandera: Boter, brood en groene kaas, wie dat niet zeggen kan is geen oprechte Fries.

Ingelesa: Butter, bread and green cheese, who that not say can is no real Frisian.

Ingelesaren antza izateaz gain, nederlandararena ere nabarmena da. Hau esaldi bat besterik ez da, baina bi hizkuntzen arteko hurbiltasunaren berri eman eta nederlandararen eta frasieraren hitzunek elkarri zenbat uler diezaioketen argitzeko ere balio diezaguke.

Frisiera ama-hizkuntza dutenak

Frisieraz hitz egiten eta idazten dakitenak zenbat diren zehazteko oso lagungarria izan daiteke hiztunaren ama-hizkuntza zein den jakitea ere. Bidezkoa da esatea jaiotzetiko frasieradunak errazago ikasiko duela frasieraz irakurtzen eta idazten nederlandaradunak baino. Hitzunen ama-hizkuntza etxean haurtzaroan ikasten den lehen hizkuntza 1980 eta 1994ko ikerketen bitartez aztertu zen.

.2:

1980 eta 1994an ama-hizkuntza (ehunekotan)

	1980	1994
Frisiera	54	55
Nederlandera ("estandarra")	31	33
Eskualde-aldaerak	13	11
Atzerriko hizkuntzak (ad. alemanera)	2	2
Guztira	100	101

Frisieraren ezagutzari dagokionez, .2 taulan ikusten den legez, ez da aldaketa nabaririk aurkitzen Frisiako hizkuntz paisaia 1980 eta 1994 arteko hamalau urteetan. Frisiako biztanleen erdiak baino gehiagok (%55) frisia du ama-hizkuntza, %33ak nederlandera eta heren batek (%11) aldaeretako bat. Atzerriko hizkuntzen hitzunen proportzioa oso

txikia da. Frisieraren lau hizkuntz trebetasunak ama-hizkuntzarekin alderatzen baditugu, hiru hitzun-multzoen artean agertzen diren aldeak nabarmenduko zaizkigu.

.3:

Frisieraren ezagutza eta ama-hizkuntza (ehunekotan)

Ama-hizkuntza	Ahozkoaren ulermena	Mintzamena	Irakurmena	Idazmena	N
Frisiera	100	100	79	26	(749)
Nederlandera	85	36	46	6	(473)
Eskualde-aldaera	94	64	50	5	(146)
Batez beste	94	74	64	17	(1.368)

Espero bezala, frisiera ama-hizkuntza duten guztiek frisiera ulertu eta hitz egin dezakete (%100). Taulan agertzen den gorabehera interesgarria frisiera ama-hizkuntza ez dutenen artean ikus dezakegu: noski, eskualde-aldaeren hitzunek (%94) nederlandarren hitzunek (%85) baino gehiago ulertzen dute frisiera. Frisiera hitz egiteari buruzko emaitzak are eta dei-garriagoak dira. Nederlandarren eskualde-aldaeren hitzunen ia bi herenek (%64) ikasi dute frisieraz hitz egiten, baina nederlandera estandarren hitzunen herena baino zertxobait gehiago dira hori bera egiteko gai. Eskualde-aldaeren hitzunik gehienak Frisian bertan jaio dira. Baina, nederlandaradunen herena bakarrik jaio da Frisian. Horretxek zurituko du aurki ezagutza-zifren arteko aldea. Guztiz bestelakoa da frisieraz idazteko gaitasunarekin gertatzen dena. Begi bistakoa da frisiar hitzunik ez direla gai beren ama-hizkuntzan irakurtzeko eta idazteko. Frisiar gizartean ez dago horretarako behar handirik. Frasieradun gehienek nederlanderaz ongi irakurri eta idatzi arren, lehen eta bigarren hezkuntzan ez baitzaie besterik irakatsi, %79k irakur dezake bere hizkuntzan eta bakarrik laurdenak (%26) idatz dezake. Eta, frisiera ama-hizkuntza ez dutenen proportzioak askoz ere txikiagoak dira trebetasun horietan. Bakarrik erdiak irakur dezake frisiera eta bakan batzuek idatz dezakete: 20tik batek (%5).

Frisieraren erabilera

Orain arte ikusitako tauletan argi ikusi da Frisiako biztanleriaren zati garrantzitsu bat frisiera hitz egiteko gai dela, H₁ gisa (%55) nahiz H₂ gisa ikasita (%20). Honek ez du esan nahi edozein egoeratan hitz egiten dutenik. Norbaitek frisieraz hitz egiten badu, lehendabizi, solaskidearen arabera egingo du eta ondoren egoeraren formaltasun-mailaren arabera. Frasieraren erabilera testuinguru edo egoera ezberdinekin erkatzen badugu eredu aldakorra ikusiko dugu: familian, lanean edo herriko komunitatean frisiera da nagusi, gehienek egiten baitute frisieraz. Eredu formalagoetan, hezkuntzan, komunikabideetan, administrazioan eta lege-gaietan, berriz, frasieraren erabilerak beheraka egiten du, oro har erabilera nahiko mugatuta dago.

Hurrengo taulan frasieradun zaharrek eta frasieradun berriek gizarte-bizitzako hamabi egoera ezberdinetan hizkuntza zenbaitetan erabiltzen duten jasotzen da.

.4:

Frisieraren erabilera, H_1 nahiz H_2 gisa ikasita, hamabi egoera ezberdinetan (ehunekotan)

	Frisieradun berriak	frasieradun zaharrak
Turista holandar batekin	1	4
Auzoko holandarrarekin	4	19
Sendagile espezialistarekin	5	22
Ezezagun batekin hirian	13	41
Familiako sendagilearekin	18	56
Alkatearekin	22	60
Etxeko atarian dagoen ezezagun batekin	21	68
Poliziarekin	23	71
Irakaslearekin	31	76
Postetxean	32	80
Etxe ondoko auzokoarekin	41	83
Dendariarekin	42	85

Frisieraren erabilerari dagokionez, .4 taularen goiko aldean oso alde txikia dago jatorrizko eta ez jatorrizko hiztunen artean. Holandar turista bati ez zaio frasieraz hitz egiten. Frisiar hiztunen %19k, berriz, frasieraz egiten die auzoko holandar hiztunei, baina hiztun ez-jatorrizkoen artean banaka batzuk besterik ez dute hori egiten. Antzeko zerbait gertatzen da sendagile espezialista batekin: normalean ezagutza teknikoa nederlanderaz jaso dute eta egoera formala da. Taula “menditsu” honetan beherantz eginez gero, alde nabariak azaltzen dira erabileran bi hiztun-multzoen artean. Azkenean ikus dezakegunez, jatorrizko frasieradunen %85k eguneroko erosten duen dendan frasiera erabiltzen du. Eta horren haritik, beste bi galdera egin zitzaizkien, saltzaileak egindako itaunari erantzuteko zein hizkuntza aukeratzen zuten jakiteko.

.5:

Jatorrizko frasieradunak eta nederlanderadunak erantzuteko aukeratzen duten hizkuntza norbaitek frasieraz zein nederlanderaz galdetzen dienean

	Jatorrizko frasieradunak		Jatorrizko nederlanderadunak	
	Frisiera	Frisiera ez	Frisiera	Frisiera ez
Solaskidea frasieraz hitz egiten hasten zaionean	98	2	33	67
Solaskidea nederlanderaz hitz egiten hasten zaionean	22	78	2	98

Taularen ezker aldean ikusten dugunez (.5), solaskideak frasieraz egiten dienean, frisiar hitzun gehienek (jatorrizkoek) frasiera erabiltzen dute erantzuteko (%98). Norbaitek nederlanderaz egiten dienean, berriz, lautik hiruk baino gehiagok hizkuntza aldatu eta nederlanderaz erantzuten dute. Bakarrik %22k eusten dio frasierari nederlanderaz ari zaion norbaiti erantzuteko.

Beste guztietan, baita frasiera ikasten ez dutenen artean ere, oso bestelako emaitza aurkitzen dugu: %33k (guztien %42a frasiera hitz egiteko gai da) erantzuten du frasieraz beraiei norbaitek frasieraz egiten dienean eta ia %100k nederlanderaz erantzuten du nederlanderaz denean solaskidearen lehen hitza.

Eta hona hemen aurrez aurre gizarteko gertaera berezi bat, beste komunitate elebidunetan ere gertatzen dena bi hizkuntzek antz handiak dituztenean: hizketan ari diren bi kideek bakoitzak bere hizkuntzari heltzen diote; beraz, berbaldi guztian zehar kodeen txandaketa gertatzen da. Frasiera helduei irakasteari dagokionez, horrek esan nahi du nederlanderaduna hiztuna Frisiako hitzun elebidun multzoko partaidea izan daitekeela entzumenean gaitasun nahikoa baldin badu. Frisian jaio diren hitzun ez-jatorrizkoek frasiera ulertzen ikasi dute (eta askok hitz egiten ere bai) haurtzaroan beren ikaskideei entzunez. Eta hori berariaz ari da bultzatzen 1980tik lehen hezkuntzan eta 1993tik aurrera bigarren hezkuntzan ere bai.

*Frisiera bigarren
hizkuntza bezala
ikasteko testuingurua*

Frisierak egoera indartsuena testuinguru informaletan duela argi lagatzen saiatu naiz sarrera soziolinguistikoa. Eta indarra testuinguru informaletan izateak badu bere isla frasieraz hitz egiten ikasi duten hitzun ez-jatorrizkoen motibazioetan. Frysky Akademyk hizkuntzaren erabilerari egindako ikerketan (Gorter & Jonkman, 1995), hain zuzen ere, horretaz galdetu zien ikasleei.

.6:

Frisiera hitz egiten ikasteko arrazoiak (ehunekotan)

	%	(N)
Nagusiki arrazoi sozialengatik	58	(167)
Arrazoi berezirik ez	21	(60)
Nagusiki lanarengatik	9	(25)
Nagusiki dibertitzeko, ongi pasatzeko	5	(14)
Bestelako arrazoiengatik	8	(23)
Guztira	101	(289)

Badago herri-komunitateko gizarte-bizitzan hizkuntza ikasteko suspergarriak. Frasiera ez da ikasten klase formaletan, gizarte-bizitzan baizik, jendearekin harremanetan.

Frisia eleanitzaren egoera linguistiko eta soziolinguistikoa deskribatu ondoren, hizkuntza gutxitua ikasteko kanpoko presio ekonomiko txikia eta nederlanderaren nagusitasuna ezaugarri dituen testuinguru honetan frisia helduei irakasteaz arituko gara orain.

Zenbaitentzat Herbehereak eta baita Frisia bera ere oso herri tolerantea da. Hala ere, bi muga sozial nagusi daude. Eta muga horiek oztopo handiak dira benetan frisia ikasi nahi duenarentzat.

1 Nederlanderaren hizkuntz taldearen nagusitasuna.

2 Nederlanderaren hitz egiten duten hiztunak gizarte-maila altuagokoak izatea.

Muga horiek hizkuntza gutxituaren hiztunak bere hizkuntza erabiltzea zaildu baizik ez du egiten orekarik gabeko egoeran horretan. Erdi-liberal batek, gizarte presioaren tresnaz baliaturik, honako hau esan diezaioke frasieraz jardun nahi duenari: "Benetan zuen hizkuntza frisiar dibertigarri hori erabili nahi baduzue, zuen esku dago erabat". Heldu batek ikastaro batean frisia ikastea eta ikastaroa amaitu ondoren erabiltzea gehienetan bere esku dago soil-soilik.

Hezkuntz testuingurua

Hezkuntzan frasierak duen egoera Herbehereetako hezkuntza-sistema orokorraren arabera da. Hala ere, Herbehereek ez dute curriculum nazionalik eta, gainera, lehen hezkuntza bukatzean ezinbestean egin behar dituzten nazio-mailako testek ez diote estu-estu legeak dioenari jarraitzen. Eskola publiko zein pribatuak legearen asmoak betetzeko eskubidea eta beharra dute, nahi bezala eta beren ardurapean. Hezkuntza-mailako askatasun horrek ondorio kaltegarriak ekartzen dizkio frasierari askotan. 30eko hamarkadan frasierazko hezkuntzarako erraztasuna ohiko hezkuntza-sisteman handitzen joan zen pixkanaka-pixkanaka. 1937an frasieraren irakaskuntza lehen hezkuntzan onartu zen, Herbehereetako dialekto bat legez, Herbehereetako edozein tokitan. 50ekoan Leewarden-en frasieraren aldeko eskubideengatik auzitegietan izandako zenbait iskanbilaren ondoren bigarren mundu gerraren ondoren gutxika-gutxika sortutako eskola elebidunak legeztatu ziren 1955eko Herbehereetako Lehen Hezkuntza Aldatzeko Legearen bitartez.

Frisiera derrigorrezko ikasgaia da 1980. urteaz geroztik lehen hezkuntzan, baina hezkuntza-askata-sunaren kariaz gobernuak ez du ezartzen frisia irakasteko jarraitu beharreko ildorik, eta frisia ikasgaiari zenbat eskola-ordu eskaini beharko litzaiokeen ere ez du esaten. Ikerketek argi uzten dute Frisiako lehen hezkuntzako eskola askotan frasierari eskaintzen zaion denbora legeak ezarritako gutxienekoa baino ez dela, asteen 30 edo 45 minutu.

Ondorio bertsuak aurkitzen ditugu frisia beste ikasgai bat irakasteko bitarteko denean. Lehen hezkuntzan frasieraren bitartez edozein ikasgai irakasteko eskubidea dago; hala ere, orain arte eskola gehienek prestigio gutxieneko ikasgaiak irakasteko erabili dute frisia, adibidez biologia edo historia.

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan lehen urtean soilik irakasten da frisia asteen ordu batez. Nekez erabiltzen da frisia beste ikasgai bat irakasteko. Bakarrik ikasleen gutxiengo batek aukeratzen du frisia azterketetarako.

Helduentzako ikastaroak Frisian

Helduentzako frasieraren irakaskuntzari heltzean, Afûk-en, helduei irakasteko Frisiako institutuaren lanak azalduz hasiko gara. Hirurogeita hamar urte dituen institutu zahar honek sarritan aldatu du bere curriculum-a azken hamarkadotan.

Afûk

Afûk-a (Algemine Fryske Underrjocht Kommissje = Hezkuntzarako Frisiar Batzorde Orokorra) helduentzako ikastaroak antolatzen dituen institutu profesionala da (Jelsma, 1996). 1928an sortu zuten frasieraren irakaskuntza eskolan nahiz eskolaz kanpo bultzatzeko asmoz, artean ez baitzen frisia eskoletan ikasgaitzat onartzen. Beraz, Afûk-ak bere kasa eskolaumeentzat eskola-orduz kanpo ikastaroak antolatzeari ekin zion: 30eko hamarkadan 1000 bat eskola-umek hartzen dute parte urtero ikastaro horietan. Era berean, Afûk-ak Herbehereetako gobernuarekin frasieraz ikasteko bidea erraztea negoziatu zuen. Halere, denbora pasa ahala, Afûk-a frisiar mugimendu ideologikoak sortutako elkarte bat izatetik, frasierazko irakaskuntza behar den tokitara eramateko (materialak barne) elkarte bat izatera pasatu da. Laurogeita hamarreko hamarkadan Afûk institutuan (eta argitaletxean) hamabi langile eta egun erdiko 60 irakasle zeuden. Azken horiek, gutxi gorabehera urtero 80 ikastarotan banatuta, 1000 helduri eskolak ematen dizkiete.

Curriculumaren berrikuntza

Ohiko hezkuntza-sistemak umeen alorreko frasieraren irakaskuntza bere gain hartu zuenean, Afûk-ek helduen irakaskuntzari heldu zion. 50eko hamarkada aurretik frasieraren hiztunei berei frasieraz irakurtzen eta idazten irakasten hasi zen. Irakaskuntza beharrak benetan txikiak ziren kasu horietan, frasieraren hiztunek inork baino hobeto hitz egiten baitzuten, nederlanderaren interferentziarik gabe. Horien hizkuntzak, gainera, garai hartako nekazal bizitza islatzen zuen eta frasierak aise egin zion aurre egoera horri.

50eko hamarkadatik aurrera nederlanderaren hiztun ugari Frisiara bizitzera joan zirenean frasieradunak eta nederlanderadunak elkarren ondoan bizi behar izan zuten ingurune berean. Eta, lehen berrikuntza curriculum-arrak ikasleen hizkuntz jatorri ezberdinei erantzun behar izan zion.

Curriculumaren beste berrikuntza bat ideologiari zegoen lotua. 50eko hamarkadaren ondoren institutuak frasieraz irakurtzen eta idazten irakastearekin batera, bere gain hartu zuen frisiar komunitatea esplizituki sustatzea: frisiar ikasleei beren inguru naturala eta frisiarren ezaugarri tradizionalak estimatzen irakastea. Eta horrek badu zerikusirik Frisia 50eko hamarkada aurretik “elebazarren babeslekua” izatetik, gizarte eleanitz moderno bat izatera pasatu izanarekin. Bi hizkuntzak elkarren parean erabiltzen dira eta, antzeko samarrak izanik, hizkuntz interferen-

tzia ugari gertatzen da nederlanderatik frasierara. Beraz, ikastaroek frasieraren kalitatea hobetzea zuten xede. Frasieraren zuzentasuna, bizitza modernoan (hiritarrean) erabiltzeko moduko hizkuntza izatea eta esparru berrietan balioko zuen frasiera ziren, besteak beste, arretagunea.

Gaur egun Afûk-ek ikastaro-mota ezberdinak antolatzen ditu, jendeak zer eta zein abiaduraz ikasi nahi duen aintzat hartuz. Eta badago ezberdintasun gehiagorik ikasle-taldearen eta gizaki bakoitzak dituen beharren arabera.

Frisierarekiko ikuspegia aldatu egin da. Lehen frasiera nagusiki kultur fenomeno bezala ikusten zen (literatura, antzerkia, historia); orain, berriz, gizarteko esparru guztietan erabili beharreko komunikazio-tresna bezala ikusten da. Eta, Curriculumaren berrikuntza hizkuntza ikusteko azken pentsamolde honi dago lotua. Frisian, curriculumaren berrikuntzarako (Jelsma, 1997: 3-7) kontuan hartu den eredu nagusia Krashen-en hurbilbide naturalarena da (Krashen & Terrel, 1983), bigarren hizkuntza baten ikaskuntza prozesua azaltzen duena. Krashen-en bereizketaren arabera, gauza bat da hizkuntz jabekuntza, hots, haurraren hizkuntza ikasteko modu naturala, eta beste bat hizkuntza ohartuki ikastea zeinu-sistema bezala, hots, eskolako hizkuntz ikaskuntza.

Badago, bestalde, ordena natural bat, zer ikasten den lehenago eta zer gero ezartzen duena. Ikasitako horiek hizkuntz jabekuntzaren gunean gordetzen dira. Lehendabizi, hitz eta esaldi sinpleak, zailagoak gero, eta orainaldi eta lehenaldiaren arteko alde sistematikoak geroago. Hizkuntzaren zatirik zailenak ezagutza errazagoen ondotik datoz. Jabekuntza-gunearen monitorea hizkuntz arauak biltzeaz eta zuzen erabiltzeaz arduratzen da. Akats bat egiten denean, feedbacka iristen da aipatu gunera araua zuzen gordetzen den arte. Zenbat eta zailagoa inputa, orduan eta gehiago erabili beharko dugu monitorea. Monitorearen erabilera hizkuntz ikaskuntzako jardueri dagokie eta ez hizkuntz jabekuntzakoei. Oso espontaneoak ez diren ikasleak laguntza handiagoa jaso dezakete hizkuntz ikaskuntzako jardueretatik. Ikuspegi naturala aukeratu izanak esan nahi du oraindik frasieraren hitzun ez direnentzako klaseak hizkuntz jabekuntzan oinarritzen direla. Baina beste ikastaro batzuetan erabiltzen den materiala, nagusiki hizkuntz ikaskuntzara bideratua izaten da. Ikaskuntz jarduerak, hala ere, jabekuntza jarduerekin ahalik eta baterago etortzeko daude prestatuak; ikaskuntza jarduerak ikasleen beharrei erantzuteko asmoz erabiltzen dira. Ikaskuntza arrakastatsuagoa izan ohi da horrela.

Frisieraren ikaskuntza arrakastatsuagoa eta ikasleei egokituagoa izateko curriculumaren beste berrikuntza bat, ikastaroa berezko batasuna duten zati ezberdinetan banatzean datza: moduluak. Adibidez arau gramatikalak, ortografia, esaerak, itzulpenak, irakurmena, etab...

Beraz, curriculumaren berrikuntzen emaitza nagusiak azken urteotan honako hauek dira:

- 1 Ikastaro bereziak ikasle-talde ezberdinentzat.
- 2 Frasiera funtzionala azpimarratzea, eguneroko hizkuntzan oinarritua, ezagutza teorikoan oinarritu beharrean.

Irakasleen eta ikasleen ebaluazioa, oro har, positiboa izan zen, ikasgaiak onurakorragoak, modernoagoak eta landuagoak baitziren. Hala ere, lehenengo erako modulua haurrentzakoa zela adierazi zuten, atalase-maila baxuegia baitzen orduan.

Ikus dezagun orain Afûk-ek eskaintzen dituen ikastaroen laburbilduma bat.

*Helduentzako
ikastaroak*

Hogei bat ikastaro ezberdin daude. Ikasle-mota ezberdinen araberrako bost talde nagusi egin daitezke.

- a** Frisiarrak ez direnei begirako ikastaroak, frasieraren ulermena behar edo nahi dutenentzakoak. Gehienbat biztanle etorri berriak joaten dira ikastaro horietara.
- b** Frasieraz jardun behar edo nahi dutenentzako ikastaroak. Adibidez, lanarengatik egunero frisiar hiltunekin harremanak dituzten langileak dira hemen ikasle. Normalean, frisiarrak ez direnek bi sei hilabeteko ikastarotan hartzen dute parte, ulermena, irakurmena eta mintzamina lantzeko. Ikastaro trinko bat ere egin dezakete eta urte-erdiko nahiz bi aste osoko ikastaro azkarrak ere badituzte aukeran.
- c** Frisiera ezagutu arren, hizkuntza horretan idazten ikasi behar edo nahi dutenak, lanarengatik nahiz arrazoi sozialengatik (famili- edo gizarte-bizitzarako) nahiz zaletasun hutsarengatik.
- d** Frisiar kulturarekin lotura duten gai bereziak lantzeko ikastaro laburrak: frisiar literatura, historia, ortografia etab.
- e** Xede berezietarako frisiara-ikastaroak. Xede-ikasleria: funtzionarioak, epaitegietako langileak, sendagile eta erizainak, komunikabideetako langileak, liburuzainak, etab. Ikastaro horiek talde bakoitzaren beharrei erantzuteko egituratzen dira.

Afûk-en jarduera-arlo berezi bat da astero Frisiako bi egunkarietan ia erabat nederlanderaz idatziak frasierazko orrialde bana prestatu eta argitaratu ematea. Orrialde horietan berriak, gai interesgarriak eta iraganeko frisiar kulturari buruzko pasarteak daude. Orrialdea frasieraz ikasten hasi edo trebatu nahi duen jendearentzat pentsatua dago.

Egunkari nagusian, era berean, egunero bi pertsonaren marrazki bat agertzen da: bata, nederlanderaren eragina duen frisiara okerra erabiltzen du, besteak, frisiara zuzena.

Ikastaroen modernizazioaren gaineko ideia argiago bat izateko ikus ditzagun beste lau eskaintza: hastapeneko ikastaro bat, ez-jatorrizkoentzako ikastaro azkarra, frasieraz hitz egiteko eskubideaz ohartarazteko ikastaroa eta funtzionarioentzako hastapen-ikastaro bat.

- *Nij yn Fryslân* (1994): Frisiara etorri berria

Friskiako biztanle etorri berrientzako hastapen-ikastaro bat da hau. Bideofilm baten bitartez probintziako egoera soziolinguistikoa azaltzen da eta frisiarari eta bere kulturari buruzko aurkezpen txikia eskaintzen.

Liburuxkan hizkuntzaren hainbat alderdi lantzeko ariketak daude. Hastapen-ikastaro hauen helburua da etorri berriei adieraztea Frisia eleantza dela eta eleaniztasunean murgiltzeko gonbitea egiten zaiela.

• *Bekjegau* (1990): “Min zorrotza”

Ikastaro hau nederlanderadunek epe motzean frasieraz hitz egiteko da (urte-erdian arituz edo ikastaro trinko bat eginez). Ikastaroa talde txikitan eskaintzen da. Ikasleek gai izan behar dute frasiera ulertzeko eta irakurtzeko. Hizkuntz trebetasunak klasetik kanpo, telebista ikusiz, prentsa, aldizkariak irakurri, eta irratia entzunez hobetzen saiatzeko eskatzen zaie ikasleei. Asmoa da, ikasleek hizkuntza eskuratzea haurrek eskuratzaren duten bezala, Krashen-en ereduan oinarrituz: hitz berriak entzun, buruz ikasi eta ahoskatzen saiatuz. Beraz, ikastaroa frasieraz egiten da, nederlanderara argi geratu ez diren zenbait gauza argitzeko bakarrik erabiltzen du irakasleak. Ikasteko era natural honen euskarritzat hiru ariketa-mota ditugu:

Esapideak. Gai baten inguruko hitz-multzo handi bat, ad., kafea hartzea; buruz ikasi behar dira. Zenbait hitz nederlanderaren parekoak dira.

Arauek. Haurrek nahi gabe ikasten dituzte arauak hainbat urtetan. Helduek, berriz, arauak errazago eta azkarrago ikas ditzakete horretara jarrita, adibidez aditz-flexioak.

Ahozko ariketa laburrak. Lehenengo klasetik ikasleek esaldi sinpleak, “Hona hemen” edo “Eskerrik asko” bezalakoak esan behar dituzte. Onartzen zaie nederlanderaz zerbait esatea. Ikasleak hitzak ez jakitearen edo ebakera okerraren beldur izan ez daitezten animatzen dira. Etxeko lanak idatzizkoak izan ohi dira, ez ortografia ikasteko, esaldiak osatzen ikasteko baizik. Klaseen zatirik nagusia, talde txikitan, ahozko ariketak egiteari eskaintzen zaio.

• *Omgean mei it Frysk* (1985-1990): Frasierarekin nola moldatu

Ez da libururik erabiltzen. 80ko hamarkadan emakumezkoen estimua hobetzeko prozesuetan esperientzia zuen irakasle batek eman zuen ikastaro hau. Helburua da frisiar hiztunek egoera publikoetan, bileretan esaterako, frasiera erabiltzeko eskubideaz ohartzea eta kontzientziaztea. Batzuetan hiztunei frasieraz hitz egitea debekatu egiten zaie, norbaitek frasiera ulertzen ez duelako. Rol-jokoen bitartez gizarteko egoera ezberdinetan ikasleek frasieraz hitz egiteko debekuari aurre egin diezaiokete.

• *De oerstap* (1983): Aldaketa

Funtzionarioentzako ikastaroa da, gai ofizialetan frasiera erabiltzen irakasten duena. 70eko hamarkadatik aurrera probintzia eta herrietako bulegoetan frasieraren erabilerak gora egin du. Nederlanderako esapide-eredu estandarrak frasieran ez daudenez, frasieraz garatu behar izan dira; lan aitzindaria izan da alde horretatik. Bestalde, kontrako jarrerak daude oraindik ere funtzionario askoren aldetik. Ikastaroko eskuliburuan frasierak gai ofizialetan izan duen bilakaera azaltzen da, eta horretxek erakuts diezaioke ikasleari hizkuntza askatasun osoz erabiltzeko bidean norbera

zein urratsetan dagoen. Sormena ez ezik prozesua hasi eta horri eusteko ahalmena ere behar-beharrezkoa da hemen.

Amaiera Aipatutako ikastaro guztien arrakasta batez ere norberaren esku dago. Nederlanderaren hiztun-taldearen nagusitasunak frasieraren erabilera mugatzen du. Eta, testuinguru politikoa aldatzen ez den bitartean, Herbehereetako ereduaren presioak jarraitu egingo du. Frisian badago egoera askotan frasieraz hitz egiteko pizgarririk, baina badaude baita ere hizkuntz egoera nahasiak, adibidez batzar publikoetan, ez baita horietan frasieraz aritzea egoki ikusten. Horixe da egoera horietan Herbeheretako hizkuntz moldearen kontra borrokatzen dutenen arrangura.

Itzultzailea: Nekane Goikoetxea

Bibliografia

Gorter, D. et al. 1984. *Taal yn Fryslân*. Ljouwert/Leeuwarden.

Gorter, D., Jonkman, R. 1995. *Taal yn Fryslân op 'e nij besjoen* [=Hizkuntza Frisian. Birmoldatua]. Ljouwert/Leeuwarden.

Jelsma, G. 1996. Introduction to the Afûk (Afûk-aren aurkezpena). *The Learning Community* 0: 7-9.

Jelsma, G. 1997. The Krashen Model; Natural approach- Some starting points for learning a language (Krashen-en eredu; Hurbilpen naturala-Hizkuntza bat ikasteko abiapuntuak). *The Learning Community* 1: 3-7.

Jelsma, G. 1992. 'Kursusûntwikkeling Afûk (Curriculumaren Berrikuntza Afûk). *De Pompeblêden* 63/1: 16-18.

Krashen, S. & Terrell, T. 1983. *The Natural approach. Language acquisition in the classroom*. (Hurbilpen naturala. Hizkuntz jabekuntza klasean) OUP.

Pietersen, L. 1969. *De Friezen en hun taal* (Frisiarrak eta beren hizkuntzak). Drachten.

Frisiera irakasteko zenbait materialen izenburuak

Wolkom Kursus Frysk ferstean en lêzen. 1996. (Ongi etorri. Frisiera ulertu eta irakurtzeko ikastaroa) Audiozintekin eguneroko gaiei buruzko testuekin.

A-boek. 1995. Egoera arruntetan idazteko eredu nagusiak.

Janny van der Veen en Bouke Oldenhof. 1990. Bekjegau. Materiaal foar kursussen Frysk foar net-Frysktaligen. [=“min zorrotza” Frisiera epe motxean hitz egiteko ikastaroa] Ljouwert.

Gjalt Jelsma (Ed.) 1983. De Oerstap. Taalboek Frysk yn it offisjele ferkear. Ljouwert. [Aldaketa. Frisiera gai ofizialetan erabiltzeko funtzionarioentzako ikastaroa].

Nij yn Fryslân. 1994. Een introductie in de Frisie taal [=Frisiara etorri berria. Frisiera ezagutzeko hastapenak. Frasieraren aurkezpena] Bideozinta eta liburuxka.